

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

9/2020 Mozioa, urtarrilaren 24koa, gure herrietan banku-erakundeak ixtearen ondoriozko arazoei buruzkoa

Arabako Batzar Nagusi hauetako Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren II. Batzordeak, 2020ko urtarrilaren 24an egindako bilkuran, honako mozioa onetsi zuen:

9/2020 Mozioa, urtarrilaren 24koa, gure herrietan banku-erakundeak ixtearen ondoriozko arazoei buruzkoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Arabako Lurralde Historikoko udalerrien inbentario bat egin dezala, existitzen diren bulego fisikoei, kutxazain automatikoei edo banku-erakundeen langileek ematen duten aurrez aurreko arretari dagokionez.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote azter ditzala kutxazain automatikoetako zerbitzuen finantza-erakundeek edo enpresa sustatzaileek eta kudeatzaileek ezarritako baldintzak, terminal horiek instalatzea ahalbidetzeko behar diren ekimenak bultzatzeko, hala badagokio.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 24a

Presidente

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA